

# ULTZANUETA ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

-----  
Lehendakaria: D. Martín M<sup>a</sup> Picabea Aguirre ( Ultzama )

Batzordekideak:

- D. José M<sup>a</sup> Ibarra Echenique ( Ultzama )
- D. Jesús M<sup>a</sup> Larretxea Lazkano ( Ultzama )
- D. Iker Isasi Alemán ( Ultzama )
- D. Roberto Elbusto Egozkue ( Anue )
- D. Alberto Urdaniz Elizondo ( Odieta )

## MANKOMUNITATEKO BATZARRERAKO DEIA

Martin M<sup>a</sup> Picabea Aguirrek, Ultzama, Anue eta Odieta "ULTZANUETA" Zerbitzuen Mankomunitateko Lehendakariak, Mankomunitateko BATZARRAREN kide zaren aldetik, OHIKO BILKURARA DEI egiten zaitut. Bilkura, Ultzamako Udaletxeko areto nagusian egingo da **OSTEGUNEAN, 2023KO ABENDUAREN 28an, 19:00etan.**

Etortzerik ez baduzu, etortzea eragozten dizun BIDEZKO ARRAZOIA egiaztatu beharko duzu, toki-araubidearen legediak adierazten duen erantzukizunik ez izateko.

Gai-zerrendan agertzen diren gaien dokumentazio osoa, eztabaidarako eta, hala badagokio, bozketarako oinarri izango dena, batzordekideen esku Idazkaritzan egongo da, Deialdiaren egunetik aitzina.

Jakinaren gainean egon zaitezten eta bidezko ondorioak izan ditzan, jakinarazten dizut, Erripan ( Odieta ), bi mila eta hogeita hiruko ABENDUAREN 22an.



Ultzanueta  
Zerbitzuen  
Mankomunitatea  
Mancomunidad  
de Servicios de  
Ultzanueta

Martin M<sup>a</sup> Picabea Aguirre Jna.  
ULTZANUETA Zerbitzuen Mankomunitateko Lehendakaria

## **GAI-ZERRENDA**

- 1. Aurreko bilkuretako aktak onartzea.**
- 2. 2024. urteko Aurrekontuaren espedientea eta hura betearazteko oinarriak hasiera batez onestea.**
- 3. 2024. urteko Plantilla Organikoaren hasierako onespena.**
- 4. 2024. urteko Lan-Egutegia onartzea.**
- 5. 4/2023 aurrekontu-aldaketaren hasierako onespena. Kreditu-gehigarria. Iraizotzen eta bertako Urbanizazioan, hornidura-sarea altan berritzeko obrak.**
- 6. 5/2023 aurrekontu-aldaketaren hasierako onespena. Ezohiko kreditua. Proiektua idaztea eta laguntza teknikoa ematea, ura digitalizatzeko PERTE dirulaguntza eskatzeko.**
- 7. Bigarren kreditu bat kontratatzea, 2023-2025 urte bitartean egindako inbertsioak finantzatzeko (2023-2025 Tokiko Azpiegituren Planeko laguntzekin estalita ez dagoen zatiari dagokionez). Espedientea esleitzeko erabakia.**
- 8. Ur-hartuneen araudia aldatzea (obra berria/lehendik dauden sareak aldatzea/zigorrak).**
- 9. Iruzuraren aurkako plan bat eta horri dagozkion eranskinak onartzea, Ultzanueta Zerbitzuen Mankomunitateak Espainiako Gobernuaren Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruko dirulaguntzen deialdietan parte hartzeari dagokionez.**
- 10. Batzorde Iraunkorrak hartutako erabakiak berrestea.**
- 11. Lehendakaritzaren ebazpenak.**
- 12. Mankomunitateko Lehendakaritzaren informazioak.**
- 13. Eskaerak eta galderak.**